

¡CHISTULARI GAISOA!

Guztiyak pozez daude,
Triste ni bakarrik:
Triste ¡bai! zeren nagon
Ama gabetanik:
Baña josta ditezen
Besteak gogotik,
¡Ai! chistua jo bear,
Naiz egon tristerik.

¡Chistua jo! ¿ta nola
Joko det chistua,
Baldin naigabepean
Banago sartua?
Chistu-soñuen ordez
Balitz ¡ai! lantua,
Litzake neretzako
Gauz errazagua.

¿Nola ez? Illun dago
Neretzat guztiya;
Dena samintasuna,
Dena da antsiya:
Joan da, joan da nigandik
Ama maitatiya,
¿Non arkiko det oraiñ
Munduan argiya?

Ala ere nai dute
Nik soñu jotzea,
Nere chistuaekin
Bérak poztutzea:
Bañan, bañan ill bazait
¡Ai! ama maitea,
¿Nola joko det ezer
Ezpada tristea?

Penik badu, triste du
Kantatzen choriyak;
Eta izanagatik
Naigabe biziyak,
Biotz saminduen
Erdiragarriyak,
¡Nai dute nik jotzea
Soñu chit alaiyak!

¡Penadunak ez bear
Jo soñu tristerik!
¿Noiz, noiz ikusi dute
Gabaz eguzkirik?
¿Noiz doakabearen
Biotz samindutik
Ateratzen irrintzi
T' uju pozezkorik?

Geldi bitez ujuak
Pozdunarentzako;
Beto, betoz nigana
Zenbait negar-malko,
Zeren obeak diran
Ni sendatutzeko,
Nere samintasanak
Zerbait gozatzeko.

Agur, ama: begira
Zadazu Zerutik,
Nola nagon ni beti
Zutzaz-oroiturik:
Naiz ari chistu-jotzen,
Naiz egon isillik,
¡Jainkoak daki nola
Malkóak gorderik!

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.